

8/25

irizpena

Gastronomia Euskadiko Sariak arautzen
dituen

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko uztailaren 21a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 8/25



I.- AURREKARIAK

2025eko uztailaren 9an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazkia jaso zuen, *Gastronomia Euskadiko Sariak arautzen dituen Dekretu-Proiektuari* buruzko txostena eskatuz, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1. artikulua arabera, Euskadi Gastronomia Sariak arautzea, elikakatearen gaineko ikuspegi orokor baten arabera. Integrazio-prozesu horretan gastronomia sartzen da, funtsezko faktore gisa, zeina sortu baita elikaduraren balio- kateko eragile guztien arteko lotura estutik. Horrek argi eta garbi erakusten du gure gizarteak zernolako gaitasuna duen, lege zaharrak eta berrikuntza ezkondata, bere gastronomia egokitzeko, berrasmatzeko eta mundua harritzeko.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzairen Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak eman zitzaten eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araubidean ezarritakoarekin bat etorritz.

2025eko uztailaren 16an, Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietan oinarrituta, Irizpen-Proiektu hau egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran aztertzeko. Han aho batez onartu zuen

II.- GOGOETAK

Dekretu-proiektua irakurri ondoren, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak jakinarazi du ez duela funtsezko alegaziorik aurkezteko.

Bakar-bakarrik adieraziko dugu egokia eta egokia iruditzen zaigula aipatutako sariak sektore horietan eskumena duen sailari atxikitzea, elikadura-katearen ikuspegi globalarekin eta, ondorioz, gastronomia sektore elkartu guztiekin integratzearekin bat etorritz

III.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren ustez, “Euskadi Gastronomia Sariak arautzen dituen dekretu-proiektua” izapidetzea egokia da.

Bilbon, 2025eko uztailaren 21ean

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria